

Donostian, Diputazioan, bildu dira: Irigaray jauna, buru, Oleaga, Lekuona, Mitxelena, Villasante, Lojendio ta Arrue euskaltzaiñak. eta Etxaniz eta Irigoyen, urgazleak.

Etxaide jaunaren karta bat irakurri da. Diño ezin etorri izan dala batzarrera, eta Donostiako Ayuntamentuko emoitzearen gaiñean zerbait esan gura ebal. Arrue jaunak diño Maiatzean kobrauko dala emoitza ori.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta onetsia izan da. Ala da guztiz be, Lojendio jaunak diño batzar aretan euskal-itzeri buruzko agiria onartu baiño leen, berak esan ebal berba barriak asmetako libertade osoa emon bear zala, eta gura dauela bere berbok Euskaltzaindiaren batzar-agirian agertu daitezana.

Gero, artu direan karta batzuk irakurri dira Euskaltzaindiak euskal-itzeri buruz egin dauen agiria dala-ta. Dira: Juan Gorostiaga jaunarena, esanik agirian ez-tala fin-katu euskerearen batasunari jagokona eta baita latinetik datozen berba batzuk badaukiezala sinoonimo zaarrak be. Jose Echeandia jaunarena zorionak emonik Euskaltzaindiari. Bilboko apezpiku jaunarena, esanik kontuan eukiko dauela bear dan ordurako eta Euskaltzaindiari bedeinkaziño bat bialdurik. Aita Dominikoena, aintzat arturik. Holmer jaunarena, aintzat arturik eta gogoeta oso egoki batzuk egiñik arazo onen gaiñean. Merino Urrutia jaunarena, zorionak emonik. Seijo Zarrandicoechea jaunarena, agiriaren gaiñean zerbait esanik eta Euskaltzaindiari erriarentzat aldizkari bat atera daien eskaturik. Aita Placido Mugica jaunarena, Euskaltzaindiagaz, bera egiten ari dan erdal-euskal iztegirako, artu emonetan egon gura leukeala adierazik. Maximo Uhagon jaunarena, eztagoela ondo linguistikari jagokon aldetik esanik.

Irigaray eta Aurre jaunak aurreko batzarrean Irigaray-k egin eban lantxoia geituta ekarri dabe. Bialdu bekie Euskaltzaiñeri.

Menendez Pidal jaunak karta bat bialdu dau eskerrak emonik bere larogeta amar urteurrenean Euskaltzaindiak bialdu deutsan zorionagurragaitik.

Karta bat artu da Bizkaian euskeraz irakasten ari direan jaun batzuegandik, esanik gura leukiezala euren izenak R. M. Azkue katedrari erantsi eta Bilbo eta inguruetako irakasle guztien artean alkartasun bat egin Euskaltzaindiaren laguntzailleak lege. Dira: Mikel Arruza, Jose Gimenez, Joseba Arrieta, Alejandro Echevarria, Kepa Zubia, Gregorio Larrinaga, Julian Irigoyen eta Sabin Berasaluze jaunak. Erantzun bekie esanik Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dauela asmoa, eta agertzen dabezan gurari guztiak ontzat artzen dituela, eta emendik aurrera Euskaltzaindiaren laguntzaille lege batu leitekezala R. M. Azkue katedran. Bide batez, eskerrak emon bekiez euskerearen aldeko euren borondate onagaitik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.